

DIRU ITURRIAK



Gure diskotekak **zerbitzu bat eskainiko die bezeroei**, hau da, beraein aisia gure lokalean modu egoki eta dibertigarrian pasatzeko aukera emango diegu. Horretaz gain, gure diskotekaren barnean, salmentak egongo dira, produktu batzuen salmentak hain zuzen ere, gure enpresaren izena adierazten duten arropa edota beste produktu batzuen salmenta egingo

dugu (merchandising: poltsak, kamisetak, jertseak eta biserak).

Kasu honetan, **Aktiboen salmenta da erabiliko dugun modua dirua lortzeko**. Objektu baten eskubideak saltzea, eta saldu ondoren, hura erabili, honekin, dirua etengabe irabaziko dugu, lortutako diruarekin, gure diskotekako beharrak asetuko ditugu; produktuak, argia, ura...

Diskoteka barruan, edarien prezioak ez dira aldatuko; kubata baten prezioa 7€koa izango da, Kalimotxoaren prezioa 4€koa, Garagardoa 3€ eta txupito bakoitza 2€ko prezioa izango du.

Honekin batera, gure merchandisinga eskuragarri egongo da, bai diskotekan bertan bai webgunean. Gauza bakoitza bere prezioa izango du: kamisetak 10€ balioko du, jertseak 16€, txapelak 5€ eta poltsa 6€ balioko dute, bai webgunean bai dendan.

Beste diru iturri garrantzitsu bat gure diskotekaren sarreretatik bezeroek ordaintzen duten diru kantitatea izango da. Bezeroek, aldiz, sarrera erostekotan, ezin izango dute sarrera hori bueltatu, baina berriz saldu dezakete haien kontutik, beste bezero batzuei, adibidez.

Beste alde batetik, bezeroren batek **diskoteka alokatu** nahiko balu, eta azkenean atzera botatzen bada, bizpahiru egun lehenago abisatu beharko luke, guk behar diren eta erabiliko diren aretoak prestatu beharko baititugu. Egun batzuk lehenago abisatzen badute, diru guztia itzuliko zaie.

Lokalaren alokairuak 750euro balio du hilean. Baita, egun osoa alokatzeko aukera ematen dugu ere, 25euro hain zuzen. 25euro horien baitan, alokairua eta argia bakarrik eskaintzen ditugu, hau da, alkola edota beste hainbat zerbitzu kontsumituz gero aparte ordainduko dira.



Gure prezioak finkoak dira, hau da, ez dira aldatzen egun garrantzitsu bat edota bonuak izan ezean. Lehenik eta behin, sarrerek egunaren arabera prezio ezberdinak izango dituzte, egun arruntetan izan ezik - Sarrera ohikoa 12€/pertsonako izango da -, erreserbatuak, aldiz, sarrera normalak baino garestiagoak izango dira, 30€koak hain zuzen ere. Lehen apiatutaren harira, norbait berezia edota egun garrantzitsua izanez gero, sarreren prezioak handituko dira; sarrera normala, 15€ eta erreserbatua 50€koa.

Honekin batera, bonoak ere webgunean bakarrik egongo dira , sarrera normalen bonoak adibidez 30€gatik lortu daitezke. Bonu hau hartuez gero, 3 sarrera normal eskuragarri izango dituzte, eta erreserbatuetan, aldiz, ez da bonorik izango.

Diskotekan, takilak jarriko ditugu, gure bezeroek arropa edota gauza garrantzitsuak han gordetzeko. Takila hauen arduraduna egongo da, hauek zaintzeko eta kontrolatzeko. Takila hauen prezioa 2€koa izango da, eta ordaintzerakoan pultsera antzeko bat emango zaie takilaren zenbakiarekin.

Ordainketa guztiak hatz markarekin izango dira, eta adin gabekoak, aldiz, diruarekin.